


aholkularitza informazioa laguntza dementzia prestakuntza
alzheimer



ALZHEIMER ETA BESTE DEMENTZIA BATZUEN ELKARTEA



AFARABA

Memoria ezagutzen dugu

GURE ALIATUAK

araba **álava**
foru aldundia diputación foral



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Vital
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

LABORAL
kutxa

CaixaBank

Alzheimer eta beste dementzia batzuk pairatzen dituzten Arabako senideen eta lagunen elkarte

Budapest hiribidea, 29 behea · 01003 Vitoria-Gasteiz (ARABA) · www.afaraba.org · contacto@afaraba.org · Tel.: +34 945 246 004

Alzheimerra eta beste dementzia batzuk

Garun-ehunaren nahasmendu neurodegeneratibo primario eta progresibo baten ondorioz sortzen da eta arlo kognitiboei, funtzionalei, emozionalei, konduktualei eta nortasunaren arloei eragiten die. Aldaketok dementzia duen pertsonari ez ezik, autonomia galduz joaten baita, haren familiari, adiskideei, lankideei, auzotarrei eta abarri ere eragiten die, hitz batean, haren ingurune osoari.

Alzheimer-en gaixotasuna dementzia-mota ohikoena da. Eskuarki, 65 urtetik aurrera agertu ohi da, baina adin goiztiarragoetan ere gertatzen da.

Beste mota ezagun batzuk ere badaude: LATEa (ohikoagoa adin aurreratuetan), dementzia baskularra, frontotemporal motakoa, Lewy-ren gorputz lausoekin erlazionatua, Parkinson-en gaixotasunari lotua, Huntington-en koreari lotua eta Creutzfeldt-Jakob-en gaixotasunaren ondoriozkoa.

Gure elkartea



Hau da AFARABA

Irabazi asmorik gabeko **erakunde pribatua**, erakunde publiko eta entitate pribatuekin batera ezarritako diru-laguntzen eta lan-hitzarmenen, dohaintzen eta bazkideen ekarpenen bidez finantzatzen dena. Bazkide izateko urteko gutxieneko kuota 53 €-koa da, eta urtero eguneratzen da KPIaren arabera. Hala ere, berrikusi ahal izango da ere, bazkideen batzar orokorrak zehazten dituzten akordioen arabera.

AFARABA **Erabilgarritasun Publikoko Erakunde gisa erregistratuta dagoenez**, interesdun guztiak eska dezakete informazioa tokian bertan, telefonoz edo posta elektronikoz. Alzheimerria eta bestelako dementsia duten pertsonen familia eta lagunek, boluntarioek, eta neuropsikologian, psikologia klinikoa, gizarte-lanean, lanbide-terapian eta beste ekintza profesionaletan espezializatutako profesional-talde batek osatzen dute Elkartea. Ikuspegi psikosozialetik hartzen du esku, pertsonan eta haien harreman-ingurunean fokuratutako arreta-eredua aplikatuz.



Hona hemen gure HELBURUAK:

- Familiei narriadura kognitibo arinari, alzheimerrari eta bestelako demenziei buruzko informazioa eta formakuntza eskaintzea.
- Jarduera- eta zerbitzu-programak sustatu eta kudeatzea.
- Senideen arteko topaguneak eskaintzea, gaixotasunei aurre egiteko estrategien trukea sustatzeko eta sentimenduak eta emozioak partekatzeko.
- Erakundeak sentsibilizatzea, Araban dauden zerbitzuekin gehiago konprometi daitezen eta horien kontrol eta jarraipena areagotzeko.
- Demenziei buruzko ezagutza zabaltzea, gizartearen gaixotasunari buruzko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa sustatuz.
- Gaixotasunaren intzidentziari, bilakaerari, etiologiari eta familia-mailan dituen ondorioei buruzko ikerketa soziosanitarioei laguntzea.



PARTE HARTZEKO modua:

- Gure egoitzan aurretiko hitzorduaren bidez sartuz.
- “Zurekin” programan boluntario gisa parte hartuz.
- Ekarpem ekonomikoen bidez.

Erabilgarritasun publiko gisa erregistratutako irabazi asmorik gabeko erakunde batean sartzeak edo horri dohaintzak egiteak, **AFARABA**-ren kasuan, esaterako, abantaila fiskal handiak dauzka.

Hona hemen gure kontu-zenbakiak:

KUTXABANK: IBAN ES03 2095 3156 1110 9019 7863

LABORALKUTXA: IBAN ES65 3035 0155 3515 5000 5552

CAIXABANK: IBAN ES47 2100 6507 7702 0024 9342

Diru-sartzea **BIZUM** bidez ere egin daiteke. Hau da gure kodea: **00237**

Gure zerbitzuak



Senide eta zaintzaileei zuzenduak

ESKU-HARTZE SOZIALEKO ZERBITZUA FAMILIEKIN

Senideei ikuspegi sozialetik informatu, orientatu eta aholkatzeko xedea du, arreta beharrezko baliabideekin antolatzea ahalbidetuz.

ZAINTZAILEENTZAKO PSIKOHEZKUNTZAKO AHOLKULARITZA-PROGRAMA

Gaixotasuna zer den azaltzeko, horren bilakaerari buruzko informazioa emateko, sintomen kudeaketa errazteko eta egoera horrek maila pertsonalean nola eragiten duen identifikatzeko.

SENIDEENTZAKO LAGUNTZA-TALDEEN PROGRAMA

Saioen bidez, laguntza emozionala eta lagun-egitea ahalbidetzen da, baita esperientziak partekatzeko aukera ere.

FORMAKUNTZA- ETA INFORMAZIO-JARDUERAK: Senideentzako eskola, ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak eta jardunaldiak.



Narriadura kognitibo progresiboa duten pertsonen zuzenduak

PSIKOESTIMULAZIO-PROGRAMAK

Narriadura kognitiboa edota funtzionala duten pertsonen autonomia hobetzeko, haien gaitasunak ahalik eta denbora gehien mantentzen laguntzeko eta ongizate emozionala hobetzeko xedearekin.



Dementia duten pertsonen zein haien senideen zuzenduak

“ZUREKIN” BOLUNTARIOTZA-PROGRAMA

Formakuntza egokia eta profesionalak gainbegiraturako boluntarioek pertsona hauei laguntzen diete:

- Dementia edo narriadura kognitibo arina duten pertsonen, senideak elkarte-jardueretan parte hartzen duten bitartean.
- Nahi gabeko bakardade- edota ahultasun-egoera berezietan bizi diren senideei.

AISIALDI- ETA BIZIKIDETZA-GUNEAK

Hainbat jarduera garatzen dira egunerokotasunarekin hautsi eta beste senide eta boluntarioekin une ludikoak partekatzeko aukera izateko.



Hainbat gizatalde, erakunde eta gizarteari, oro har, zuzenduta

AFARABA-tik sarean oinarritutako era koordinatuan egiten dugu lan komunitate-erloto beste profesionalekin batera. **Bestalde, gaixotasun hauen inguruko errealitatea eta sortzen diren beharrak gehiago ezagutzeko interesa duten hainbat gizatalde informatu eta prestatzen ditugu.**

Halaber, prebentzio-programak eskaintzen dizkiegu zahartzearen zantzu normalak eta alarma-zantzuak bereizi nahi dituzten gutziei.